

VILÀ SANTASUSANA, M. eta CASTELLÀ, J.M. (2014)

*10 Ideas clave. Enseñar la competencia oral en clase. Aprender a hablar en público. Barcelona: Graó.*

Graó argitaletxeak *Ideas clave* izeneko bildumako 22. zenbakia dugu honako liburu hau. Bilduma horren egiteko nagusia eskolarekin edota hezkuntzarekin lotutako gai garrantzizko bat jorratzea da era argi eta ulerterraz batean; literatura pedagogiko dibulgatzailea dugu, bestela esateko.

Liburua sinatzen duten bi egileak aski ezagunak dira Katalunian eta Estatuan, katalanez eta gaztelaniaz, komunikazio gaitasunaren inguruan eta, partikularki, ahozko dikurtsoaren ikaskuntza-irakaskuntzaren inguruan egindako ekarpenak direla eta. Alde horretatik, eskarmentutik idatzitako proposamena dela baieztatzeko moduan gaude.

Bilduman planteatu ohi den bezala, liburuaren egitura ideia gakoaren arabera antolatzen da; kasuon, hamar gako direnez gero, hamar kapitulu nagusi aurkituko ditu irakurleak, hasierako aurkezpenaz eta ondoko glosategiaz nahiz bibliografiaz gainera. Hartara, hasieran aurkeztutako ideiak garatzen dira banan-banan liburuko atal bakoitzean, eta, aldi berean, ahozko diskurtsoa ikasteko eta irakasteko gako horiek hiru bloketan antolatzen dira: «Ahozkotasunaren irakaskuntza sistematiko eta planifikatu baten alde», «Ahozko gaitasuna: hitz egitea hitzak ahoskatzea baino askoz gehiago da» eta «Nola irakatsi ahozko gaitasuna: gelarako jarduera eta orientabide didaktikoak».

Lehen blokeari dagokionez, bi kapitulu —bi ideia gako— daude, hurrenez hurren: «Berba egiten jakitea gutxi irakatsitako funtsezko gaitasuna da» eta «Ahozko diskurtsoak antolatzen du gelako bizimodua eta gogoeta zein ikaskuntza espezifikoa eskatzen ditu». Egileek hasieratik bertatik salatzen dutenez, azken urteotan hainbat urrats eman badira ere, ahozko hizkuntza

formalaren trataera minoritarioa eta eskasa da oraindik. Haien hitzetan, tradizio faltaren ondorio (kausa?) nagusietako bat da bereziki Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleek jendaurrean komunikatzeko duten prestakuntza gabezia: oinarriko hezkuntzako hainbat profesionalak zailtasun nabarmenak dituzte lankideen edota gurasoen aurrean mintzatzeko. Hori dela eta, garrantzi betekoa deritzote ahozko gaitasunak berariaz lantzeari irakaslegaien prestakuntza unibertsitarioan eta irakasleen etengabeko prestakuntzan.

Bigarren blokeaz den bezainbatean, honako lau kapitulu hauek ditugu irakurgai: «Hitz egin aurretik ongi pentsatu beharra dago zer komunikatu nahi den», «Komunikatzeak audientzia dotoreziaz eta begirunez pertsudiatzea inplikatzeko du», «Nortasuna eta ez hitzeko hizkuntza ahozko mezua-aren osagai dira» eta «Ahotsak eta intonazioak zuzenki komunikatzen dute emozioa». Orriotan, besteak beste, informazio teknologia berrien erabilera orokorrak ekarritako arrisku batez ohartzen dute bi egileek: plagioaren fenomenoaz. Hori dela eta, egiletzaren kontzeptuan hezi beharra zein besteen eta norberaren ideiak bereizten ikasi (eta, beraz, irakatsi) beharra azpimarraturik ageri dira. Bestalde, esaten denari arreta emateaz landara, esateko moduen gaineko hainbat aholku eta estrategia topa daitezke: adetasun arauen aplikazioa bereziki inplikazio emozional handiagoko tes-tinguruetan, begiradaren, keinuen nahiz euskarri elektronikoen laguntza jendaurreko komunikazioan edota ahotsaren eta zaila bezain beharrezko gertatzen den isiltasunaren kudeaketa hizkuntza bidezko interakzioan.

Hirugarren blokean, berriz, azken lau kapituluak aurkituko ditu irakurleak: «Ahozko gaitasuna irakats, ikas eta ebalua daiteke estrategia didaktiko egokiek», «Ezagutzak azaltzeak haiek ulertzea esan nahi du», «Giza komunikazioa funtsean argudiozkoa da» eta «Mintzatzeko jakiteak hainbat genero diskurtsibo ondo ezagutzea esan nahi du». Hiru bloketan hauxe da praktikoena, aurreko biak teoria hutsa ez diren arren: gelara eramateko moduko hainbat eta hainbat estrategia, aholku eta teknika eskaintzen dira ahozko dikurtsoa hobeki ikasteko eta irakasteko, bereziki azalpenezko eta argudiozko generoei dagozkienak. Halaber, zenbait sekuentzia didaktiko proposatzen dituzte Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan zein Bigarren Hezkuntzan gauzatzeko; nahiz eta, gure iritziko, sekuentzia batzuk Haur Hezkuntzan baliatzea zail samar suerta badaiteke ere.

Laburbilduz, hezkuntza sisteman ahozko gaitasunak lantzeko liburu oso baliagarria delakoan gaude. Egia da, egileen aurreko lanak ezagututa, ez dela beharbada aparteko ekarpenik eskaintzen oraingoan. Dena den, estimatzekoa iruditzen zaigu gaiari monografiko txukun bat eskaintzea, oraindik ere, Haur Hezkuntzan hasi eta unibertsitatean buka, hainbat praktika *profesional* urrun samar baitaude hizkuntzaren didaktikak gomendatzen dituen eruedetatik.

*Edu Zelaieta Anta*

VILAR MARTÍN, J. (2013)

*Cuestiones éticas en la Educación Social. Del compromiso político a la responsabilidad en la práctica profesional. Bartzelona: UOC*

Gizarte Hezkuntzaren praxi profesionalean zein erakuntza teorikoan aditua den Jesus Vilarrek ekarpen interesgarria bezain garrantzitsua dakarkigu liburu honen bitartez. Izan ere, gizarte hezkuntzaren corpus teorikoaren baitan zegoen, eta dagoen, hutsune bat betetzera baitator: gizarte aldaketaren praktika hezitzailearen kontzeptualizazioa etikaren begiradapetik aztertzea, hain zuzen ere. Horretarako, galdera batetik abiatzen da autoreak: nola jardun etika aplikatuaren bitartez gizarte hezkuntzako esku-hartzearen eremuan?

Horrek erdi-erdian jartzen du gizarte heziketaren praktikaren jardun etikoa, horretaz jabetzea, lehen-lehenik, eta, ondoren, handik eratoritzen diren balizko zailtasun praktikoak gainditzeko bideak proposatzen dizkigu autoreak.

Bi atal nagusi ditu liburuak. Lehengoa liburuaren alderdi teorikoa da, eta baditu bi abantaila: bat, argi ikusten dela autoreak bere esperientziatik eta urteetako praktika hezitzailetik edan duela liburuaren zati hau josteko, eta, bi, teoria horrek guztiak sekulako balio duela gizarte hezitzaileek euren praktika profesionala hobeto ulertzeko, beraien esku-hartze eremua dena dela ere. Zati horrek hainbat kapitulu ditu. Lehenengoan, autoreak etika aplikatuaren gaineko gogoeta ordenatua eta argudiatuta egiten du, non filosofiaren ekarpenak aztertzen dituen bioetikaren printzipioak uztartuz. Bigarrenean, justifikatzen du zein arrazoi dauden etikaz aritzeko gizarte hezkuntzan, hezkuntza eremu oro zio eta erabaki etikoez zipriztinduta dagoen neurrian. Hirugarren kapitulua bigarrenaren osagarria da, non ideia nagusia den gizarte hezitzaileen identitatearen eraikuntza bidean balio etikoek zentralitatea eduki behar duela.

Bigarren zatian daude nire aburuz, ekarpen interesgarrienak. Izan ere, gizarte hezkuntzaren alorrean, inor gutxi egin duena egiten baitu Vilarrek: etika profesionala gizarte hezkuntzako praktika profesionalean txertatzeko lan proposamena egiten du. Horretarako, gatazkak moralak zein diren zehazten du, baita ondo azaldu ere, eta horrekin lan-proposamenarako tresnak erakusten ditu, xehe-xehe. Gizarte hezitzaileek eguneroko esku-hartzean topatzen dituzten dilema etikoak gainditzeko aukera-eremua zabaltzen du liburuak, hau da, praxi pedagogikoarekin oso lotutako proposamena egiten du autoreak, eta eremu labainkor eta lausoa den horretan bideak urratzen ditu.

Horrela, bi norabide dituen tresna bat dute esku artean gizarte hezitzaileek. Alde batetik, euren praktikaren gaineko gogoeta teorikoa egiteko

baliagarria den tresna —gatazka moralak onbideratzeko moduak agertzen direlako—, eta, aldi berean, praxia bera orientatzeko bitarteko ezin hobeia.

Aldarrikapen bat dago horren guztiaren atzean: kompetentzia etikoen beharraz gizarte hezkuntzaren balio eraldatzailea aldarrikatzeko. Bide hori egiteke dago; hori bai, liburu honek nondik hasi eta hurrengo urratsak zein izan daitezkeen marrazten du.

*Asier Huegun Burgos*